

## **BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA: AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN POLTSA EGITEKO DEIALDIA**

Bortziritako Euskara Mankomunitateak, Batzorde Erabakitzaileak apirilaren 13an egindako bileran, aisialdiko begiraleen lan poltsa egiteko deialdia onartu du. Lan poltsa horrek mankomunitatearen premiak asetzeko balioko du; batez ere, mankomunitateak urtero Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan antolatzen dituen udaleku irekietarako begiraleak kontratatze balioko du. Bertzalde, mankomunitateak Bortziritako kultur eta gizarte eragileen eskura jarriko du osatzen den lan poltsa, talde horiek beren jardueretarako begiraleak beharko balituzte.

Ondoren, lan poltsarako deialdiaren oinarriak jasotzen dira.

### **I. BEGIRALE ARDURADUNEN LAN POLTSA**

#### **1. Arau orokorrak**

- 1.1. Xedea: Bortziritako Euskara Mankomunitateak Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan antolatzen dituen udaleku irekietan lanean aritzeko prest egonen diren begiraleen lan poltsa osatzea. Bortziritako gizarte eta kultur eragileei begirale lanetan aritzeko prest direnen zerrenda eskura jartzea.
- 1.2. Mankomunitateak urtero antolatzen dituen udaleku irekietarako begirale arduradunak zerrenda honetatik hautatuko ditu, puntuazio gehien duen izangaitik hasita. Beraz, zerrenda honetan puntuazio gehien duten lehenbiziko bost izangaiak (herri bakoitzeko bat) begirale arduradunak izanen dira, eta administrazioko C mailako kontratua eta lan sariak izanen dituzte. Zerrendako bost izangaietakoren batek arduradun izateari uko eginez gero, zerrendan puntuazio altuena duen hurrengoari eskainiko zaio begirale arduradun izatea.
- 1.3. 2011n eratuko den lan poltsa agortu eta begirale gehiago behar izanez gero, mankomunitateak 2009ko lan poltsa erabiliko du. Betiere puntuazioaren araberrako hurrenkera errespetatuko du.

#### **2. Eginbeharrak**

- 2.1. Mankomunitateak antolatzen dituen udaleku irekietan begirale taldea koordinatzea eta zuzentzea.
- 2.2. Aisialdi egitaraua edo programazioa prestatzea.
- 2.3. Haur taldea dinamizatzea.
- 2.4. Mankomunitateko teknikariarekin eta/edo udalekuen kudeaketa bere gain hartu duen zerbitzuko koordinatzailearekin harremanetan egotea eta koordinatzea.
- 2.5. Eman dakizkioken bertzelako lanak.

#### **3. Izangaien baldintzak**

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako honako baldintza hauek bete beharko dira:

- 3.1. Europako Elkarteko hiritarra izatea.

- 3.2. Hemezortzi urte beteak izatea.
- 3.3. C mailako lanpostuetan eskatzen den titulazioa izatea, hau da, batxilergoa edo goi mailako lanbide heziketa, edo horien baliokide izan daitekeen bertzelako tituluren bat.
- 3.4. Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz. Horretarako C1 maila egiaztatua izan beharko dute, edo, maila horretako titulaziorik izan ezean, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak onartutako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen proba gainditu beharko dute.
- 3.5. Eginkizunak betetzeko gaitasun fisiko eta psikiko aski izatea.
- 3.6. Eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik edo gabeturik ez egotea, eta administrazio publikoaren zerbitzutik baztertua ez egotea.

#### **4. Izen emateak eta eskaerak**

- 4.1. Eskaerak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen egoitzan (Herriko Plaza 7. 31790 Arantza) aurkeztu behar dira, eta **maiatzaren 20ko 12:00ak baino lehen**.
- 4.2. Izangaiek lanpostua eskuratzeko prozeduran parte hartzeko eskaera orria bete beharko dute, deialdi honekin batera doan I. eranskineko ereduaren arabera. Horrekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:
  - 4.2.1. Nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua.
  - 4.2.2. Deialdi honen 3.3. oinarrian eskatzen den titulazioa egiaztatzen duten dokumentuen fotokopia konpultsatuak.
  - 4.2.3. Baloratzen ahal diren merezimenduak jasotzen dituzten dokumentuen fotokopia konpultsatuak.
- 4.3. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.
- 4.4. Onartu eta baztertuen zerrenda **maiatzaren 24an** argitaratuko da, mankomunitatearen webgunean ([www.bortziriak.org](http://www.bortziriak.org)).

#### **5. Epaimahai kalifikatzailea**

- 5.1. Epaimahaia honako hauek osatuko dute:
  - Mahaiburua: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria.
  - Ordezkoa: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariordea.
  - Mahaikide-idazkaria: Patri Arburua Etxeberria, mankomunitateko teknikaria.
  - Ordezko mahaikide-idazkaria: Urko Ikardo Enparan, mankomunitateko teknikaria.
  - Mahaikidea: Naiara Zirez Garaikoetxea, Dindaia Fundazioa.
  - Ordezko mahaikidea: Esther Lakasta Pérez-Iltzarbe, Dindaia Fundazioa.
- 5.2. Epaimahaia probak hasi aitzinetik eratuko da.
- 5.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdi honen oinarriak ulertu eta aplikatzean sor daitezkeen arazo guztiak.

#### **6. Probak**

- 6.1. Euskara proba: gaitasun proba izanen da, eta ez du punturik emanen. Izangaiek Bortzirietako Euskara Mankomunitateak onartutako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko dute; C1 mailako titulazioa aurkezten duten izangaiek ez dute proba hau egin beharko. **Proba hau 2011ko maiatzaren 27an egingen da, arratsaldeko 15:30ean hasita, Berako Beralandeta udal eraikinean.**

6.2. Testa: proba honen helburua da Bortzirietako errealitateari eta egoera soziolinguistikoari buruzko ezagutza neurtzea. Testa 50 galderek osatuko dute, eta bakoitzak puntu bat balio izanen du. Guztira 50 puntu lortu ahalko dira, eta baztertuak geldituko dira 25 puntu ateratzen ez dituzten izangaiak. Proba egiteko ordubete edukiko dute. **Proba ekainaren 4an izanen da, 9:30ean, Berako Beralandeta udal eraikinean.**

6.2. Ariketa praktikoa: udaleku irekietan gerta daitekeen egoera baten aitzinean izangaiek proposatzen duten irtenbidea neurtzeko helburua du. Ahozko proba izanen da, eta izangaiek banaka egin beharko dute, 10 minutuz; aitzinetik txandak emanen dira eta ariketa prestatzeko denbora izanen dute. Proba honek 25 puntu balio du eta ez da baztergarria izanen. Berako Beralandeta udal eraikinean egingen da, **ekainaren 4an, 11:00tan hasita.**

## **7. Merezimenduen balorazioa.**

7.1. Aurkezten diren merezimenduak baloratu ahal izateko agiriak aurkeztu beharko dira.

7.2. Atal honetan gehienez ere 25 puntu lortu ahalko dira.

7.3. Honako merezimendu hauek baloratuko dira:

7.3.1. Formakuntza (gehienez ere 15 puntu):

- Irakaskuntzan, Pedagogian nahiz Kale Heziketan unibertsitateko titulazioa, erdi nahiz goi mailakoa, izatea edo aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua izatea: gehienez ere 6 puntu.
- Bortzirietako Euskara Mankomunitateak begirale, hezitzaile eta monitoreentzat antolatutako ikastaroetan parte hartu izana: 6 puntu. Puntuazioa irizpide hauen arabera banatuko da:
  - o Mankomunitateak 2008, 2009 eta 2010 urteetan antolatutako ikastaroetan parte hartu izana: gehienez ere 3 puntu. Oinarri gisa, 10 orduko puntu 1 emanen da; ikastaroak gehiago edo gutxiago iraun duen, puntuak proportzioan emanen dira.
  - o 2011ko ikastaroa: lau orduko hiru saio izanen dira, eta bakoitzeko puntu bat emanen da; beraz, gehienez ere 3 puntu lor daitezke. Puntuazioa proportzioan emanen da, asistentzia orduak kontuan hartuta.
- Haurren aisialdiarekin zerikusia duten bertzelako ikastaro, tailer, jardunaldi eta abarrak: 3 puntu. Horrelakoak egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan garbi jaso behar da horien iraupena ordu kopuruaren arabera. Puntuak emateko oinarri gisa hartuko da 10 orduko ikastaroa, eta horietako bakoitzagatik 1 puntu emanen da; ikastaroak gehiago edo gutxiago iraun badu, puntuak proportzioan kalkulatu dira.

7.3.2. Lan esperientzia, lanpostuarekin zerikusia duena (gehienez ere 10 puntu): hori egiaztatzeko enpresa edo elkarteen ziurtagiria edo lan kontratua aurkeztu beharko da; betiere, aurkezten diren dokumentuetan argi eta garbi adierazi beharko da lanean emandako denbora (kontratuaren hasiera eta bukaera egunak, eta lanaldia), eta zehazki zein lanetan aritu den. Lan honetan emandako 60 orduko puntu 1 zenbatuko da.

## **8. Emaitzak.**

8.1. Emaizak (lehiaketarenak nahiz oposizioarenak) ekainaren 6an, arratsaldeko 2:00etan emanen dira argitara, mankomunitatearen webgunearen bitartez ([www.bortziriak.org](http://www.bortziriak.org)).

## **10. Helegiteak**

10.1. Deialdi honen edo aplikazio egintzen aurka helegite hauetakoren bat paratzen ahal da, aukeran:

- Administrazioarekiko helegitea, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagokion sailaren aitzinean, argitara eman eta biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barnean.
- Horren aurretik, eta hala nahi bada, gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegian, argitaratzen denetik hasi eta hilabeteko epearen barnean.
- Berraztertzeko helegitea, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epearen barnean, jakinarazpen hau hartu eta biharamunetik kontatzen hasita.

## **II. AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN-POLTSA**

### **1. Arau orokorrak**

1.1. Xedea: Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan antolatzen dituen udaleku irekietan lanean aritzeko prest egonen diren begiraleen lan poltsa osatzea. Bortzirietako gizarte eta kultur eragileei begirale lanetan aritzeko prest direnen zerrenda eskura jartzea.

1.2. Mankomunitateak, urtero antolatzen dituen udaleku irekietan, beharko dituen begirale arduradunak hautatu ondotik, zerrenda hau erabiliko du begiraleak kontratatzeko, puntuaziorik altuena duen izangaitik hasita.

1.3. Begiraleek administrazioiko D mailako kontratua eta lan sariak izanen dituzte.

1.4. 2011n eratuko den lan poltsa agortu eta begirale gehiago behar izanez gero, mankomunitateak 2009ko lan poltsa erabiliko du. Betiere puntuazioaren arabera hurrenkera errespetatuko du.

### **2. Eginbeharrak**

2.1. Lan taldean aritzea begirale arduradunaren erranetara, eta aisialdi egitarauko ekintzak burura eramatea, betiere, heziketa baloreen arabera.

2.2. Haur taldea dinamizatzea.

2.3. Eman dakizkiokeen bertzelako lanak.

### **3. Izangaien baldintzak**

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako honako baldintza hauek bete beharko dira:

3.1. Europako Elkarteko hiritarra izatea.

3.2. Hemezortzi urte beteak izatea.

3.3. D mailako lanpostuetan eskatzen den titulazioa izatea, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, edo horren baliokide izan daitekeen bertzelako tituluren bat.

3.5. Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz. Horretarako C1 maila egiaztatua izan beharko dute, edo, maila horretako titulaziorik izan ezean, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak onartutako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen proba gainditu beharko dute.

3.6. Eginkizunak betetzeko gaitasun fisiko eta psikiko aski izatea.

3.7. Eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik edo gabeturik ez egotea, eta administrazio publikoaren zerbitzutik baztertua ez egotea.

#### **4. Izen emateak eta eskaerak**

4.1. Eskaerak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen egoitzan (Herriko Plaza 7. 31790 Arantza) aurkeztu behar dira, **2011ko maiatzaren 20ko 12:00ak baino lehen**.

4.2. Izangaiek lanpostua eskuratzeko prozeduran parte hartzeko eskaera orria bete beharko dute, deialdi honekin batera doan I. eranskineko ereduaren arabera. Horrekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute.

4.2.1. Nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua.

4.2.2. Deialdi honen 3.3. oinarrian eskatzen den titulazioa egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia konpultsatua.

4.2.3. Baloratzen ahal diren merezimenduak jasotzen dituzten dokumentuen fotokopia konpultsatuak.

4.3. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

4.4. Onartu eta baztertuen zerrenda **maiatzaren 24an** argitaratuko da, mankomunitatearen webgunean ([www.bortziriak.org](http://www.bortziriak.org)).

#### **5. Epaimahai kalifikatzailea**

5.1. Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria.

Ordezkoa: Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariordea.

Mahaikide-idazkaria: Patri Arburua Etxeberria, mankomunitateko teknikaria.

Ordezko mahaikide-idazkaria: Urko Ikardo Enparan, mankomunitateko teknikaria.

Mahaikidea: Naiara Zirez Garaikoetxea, Dindaia Fundazioa.

Ordezko mahaikidea: Esther Lakasta Pérez-Iltzarbe, Dindaia Fundazioa.

5.2. Epaimahaia probak hasi aitzinetik eratuko da.

5.3. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdi honen oinarriak ulertu eta aplikatzean sor daitezkeen arazo guztiak.

#### **6. Probak**

6.1. Euskara proba: gaitasun proba izanen da, eta ez du punturik emanen. Izangaiek Bortzirietako Euskara Mankomunitateak onartutako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko dute; C1 mailako titulazioa aurkezten duten izangaiek ez dute proba hau egin beharko. **Proba hau 2011ko maiatzaren 27an egingen da, 15:30ean hasita, Berako Beralandeta udal eraikinean.**

6.2. Testa: proba honen helburua da Bortzirietako errealitateari eta egoera soziolinguistikoari buruzko ezagutza neurtzea. Testa 50 galderek osatuko dute, eta bakoitzak 1,5 puntu balio izanen du. Guztira 75 puntu lortzen ahalko dira, eta baztertuak geldituko dira 35 puntu

ateratzen ez dituzten izangaiak. Ariketa hau egiteko ordubete edukiko dute. **Proba hau ekainaren 4an izanen da, 9:30ean, Berako Beralandeta udal eraikinean.**

## **7. Merezimenduen balorazioa.**

7.1. Aurkezten diren merezimenduak baloratu ahal izateko agiriak aurkeztu beharko dira.

7.2. Atal honetan gehienez ere 25 puntu lortu ahal dira.

7.3. Honako merezimendu hauek baloratuko dira:

7.3.1. Formakuntza (gehienez ere 15 puntu):

- Irakaskuntzan, Pedagogian nahiz Kale Heziketan unibertsitateko titulazioa, erdi nahiz goi mailakoa, izatea edo aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua izatea: gehienez ere 6 puntu.
- Bortzirietako Euskara Mankomunitateak begirale, hezitzaile eta monitoreentzat antolatutako ikastaroetan parte hartu izana: 6 puntu. Puntuazioa irizpide hauen arabera banatuko da:
  - o Mankomunitateak 2008, 2009 eta 2010 urteetan antolatutako ikastaroetan parte hartu izana: gehienez ere 3 puntu. Oinarri gisa, 10 orduko puntu 1 emanen da; ikastaroak gehiago edo gutxiago iraun duen, puntuak proportzioan emanen dira.
  - o 2011ko ikastaroa: lau orduko hiru saio izanen dira, eta bakoitzeko puntu bat emanen da; beraz, gehienez ere 3 puntu lor daitezke. Puntuazioa proportzioan emanen da, asistentzia orduak kontuan hartuta.
- Haurren aisialdiarekin zerikusia duten bertzelako ikastaro, tailer, jardunaldi eta abarrak: 3 puntu. Horrelakoak egin izana egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan garbi jaso behar da horien iraupena ordu kopuruaren arabera. Puntuak emateko oinarri gisa hartuko da 10 orduko ikastaroa, eta horietako bakoitzagatik 1 puntu emanen da; ikastaroak gehiago edo gutxiago iraun badu, puntuak proportzioan kalkulatu dira.

7.3.2. Lan esperientzia, lanpostuarekin zerikusia duena (gehienez ere 10 puntu): hori egiaztatzeko enpresa edo elkartearen ziurtagiria edo lan kontratua aurkeztu beharko da; betiere, aurkezten diren dokumentuetan argi eta garbi adierazi beharko da lanean emandako denbora (kontratuaren hasiera eta bukaera egunak, eta lanaldia), eta zehazki zein lanetan aritu den. Lan honetan emandako 60 orduko puntu 1 zenbatuko da.

## **8. Emaizak.**

8.1. Emaizak (lehiaketarenak nahiz oposizioarenak) ekainaren 6an, arratsaldeko 2:00etan emanen dira argitara, mankomunitatearen webgunearen bitartez ([www.bortziririak.org](http://www.bortziririak.org)).

## **9. Helegiteak**

9.1. Deialdi honen edo aplikazio egintzen aurka helegite hauetakoren bat paratzen ahal da, aukeran:

- Administrazioarekiko helegitea, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagokion sailaren aitzinean, argitara eman eta biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan.

- Horren aurretik, eta hala nahi bada, gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegian, argitaratzen denetik hasi eta hilabeteko epearen barnean.
- Berraztertzeko helegitea, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epearen barnean, jakinarazpen hau hartu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Arantzan, 2011ko apirilaren 14an  
Lehendakaria  
Ainara Maia Almandotz

## **I. ERANSKINA**

### **Eskaeraren eredia**

#### **Eskatzaileari buruzko datuak:**

Izen-abizenak:  
Helbidea:  
Herria eta P.K:  
Telefono zenbakia:  
Posta elektronikoa:

#### **Azalpena:**

- Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aisialdiko begiraleen lan poltsa eratzeko deialdia egin du, eta horretan parte hartu nahi dut.
- Eskakerak aurkezteko epea bukatzean deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut.
- Ez dut karguan aritzea galarazten didan ezintasun fisiko edo psikikorik.
- Honekin batera baloratzen diren merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkezten ditut.

#### **Eskaera**

Eskaera hau jasotzeko eta hautaketa prozesu honetan/hauetan onartua izateko:

- Begirale arduradunen lan poltsan
- Begiraleen lan poltsan

Arantzan, 2011ko maiatzaren (e)an.  
Izptua,

**BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIARI.-**